

GERTATU BADA, EGON GERTU

SAREKO INDARKERIAREN AURKAKO
ERREMINTA-KUTXA

IRAKASLEENTZAKO GIDA



Save the Children



Aurkezpena

Ongi etorri guztiok! Eskerrik asko **“GERTATU BADA, EGON GERTU”** Sareko Indarkeriaren Aurkako Erreminta Kutxa erabiltzeagatik; CUBIC eta Save the Childrenek prestatutako proiektu bat da.

Gida hau interaktiboa da:



Aurkibidera itzultzeko, egin klik orrialdeen goialdeko eskuineko ikonoan.



Egin klik ikonoan, web-orriaren estekara joateko.



Egin klik ikonoan, dokumentua deskargatzeko.



Egin klik ikonoan, dokumentu honetan dagokion atalera joateko.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
1.a. Zer da “GERTATU BADA, EGON GERTU” Sareko Indarkeriaren Aurkako Erreminta Kutxa?	5
1.b. Kontrol-zerrenda: zer behar duzu lantegia antolatzeko?	6
1.c. Aurrekariak: indarkeriaren pertzepzioei buruzko inkesta nerabeen artean	7
1.d. Indarkeria mota batzuk sarean	8
1.e. Indarkeria mota guztiak al dira delitu?	10
1.f. Informazioa eta laguntza-materiala eskaintzen duten estekak	10
2. Nerabeen babesarentzako dokumentua	13
3. Baimen informatua	13
4. Rol Jokoaren jarraibideak eta materiala	14
5. Ibilbide Orriaren jarraibideak eta materiala	17
6. Jarduerak egin ondorengo gomendioak	19

1. Sarrera

1.a. Zer da “GERTATU BADA, EGON GERTU” Sareko Indarkeriaren Aurkako Erreminta Kutxa?

Erreminta-kutxa honen helburua nerabeei ingurune digitaletan genero-ikuspegia duten indarkeria-egoerak identifikatzen laguntzea da, bai eta egoera horien lekuko gisa esku hartu dezaten sustatzea ere. Erreminta-kutxak bi jarduera ditu barnean: Rol Jokoa eta Ibilbide Orria.

Rol Jokoa (60 minutu): sareko indarkeria-egoera bat antzezteko eta ikusle gisa esku hartzeko hainbat modu praktikatzeko aukera ematen die nerabeei. Parte-hartzaileek hainbat rol interpretatzen dituzte jokoan, eta behatzaileek erantzunak denbora errealean identifikatu behar dituzte. Horri esker, indarkeria-egoerak detektatzeko eta nola jokatu erabakitzeko trebetasunak garatu ditzakete. Dramatizazioa amaitzean, ikasleek jardueran zehar identifikatu dituzten sareko indarkeriazko gertakariei eman dakizkiekeen erantzunei buruz eztabaidatuko dute, eta horri buruzko ideia-jasa bat egingo dute.

Ibilbide Orria (60 minutu): sareko indarkeria-egoeretan esku-hartzeak planifikatzen eta gauzatzen laguntzen die nerabeei. Ibilbide Orriak gida bat eskaintzen die, urratsez urrats indarkeria-egoerak behar bezala identifikatzeko eta modu eraginkorrean nola esku hartu erabakitzeko. Gainera, laguntza gehiago behar izanez gero, bilatu ditzaketen baliabideei buruzko informazioa eskaintzen die. Ibilbide Orri honen berrikuspena amaitzean, ikasleek, banakako konpromiso baten bidez, proposatutako estrategietako bat erabiltzeko konpromisoa hartuko dute.

1.b. Kontrol-zerrenda: zer behar duzu lantegia antolatzeko?

Haurren babesaren dokumenturaren kopia inprimatua: kopia bat irakaslearentzat.

Baimen informatuaren kopia inprimatuak: ikasle bakoitzarentzat bana.

Rol Jokoa:

Rol Jokoaren jarraibideen kopia inprimatua: kopia bat irakaslearentzat.

Pertsonaien deskribapenaren kopia inprimatuak: ikasle bakoitzarentzat bana eta beste bat irakaslearentzat. Pertsonaia bakoitzaren izena duen kartel bat eman diezaiokegu pertsonaia hori interpretatzen duen ikasleari.

Istorioaren gidoiaren kopia inprimatuak: ikasle bakoitzarentzat bana eta beste bat irakaslearentzat.

Instagrameko txartelak: PowerPointen proiektatzea gomendatzen da. Ezin bada, Instagrameko txartel bakoitzaren kopia bakarra inprimatuko da (ahal bada, A4 neurrian).

Irakasleentzako eztabaida-orriaren kopia inprimatua: kopia bat irakaslearentzat. Gainera, arbel bat eta klariona edo errotuladoreak izatea gomendatzen da.

Ibilbide Orria:

Ibilbide Orriaren jarraibideen kopia inprimatua: kopia bat irakaslearentzat.

Ibilbide Orria PowerPointen aurkeztea: audioa duen proiektagailuaren bidez egitea gomendatzen da. Proiektagailurik eta audiorik ez badago, PPT osoaren kopia inprimatu bana beharko da ikasle bakoitzarentzat, eta beste bat irakaslearentzat; ikasleek ozen irakurri beharko dituzte sareko indarkeriaren biktimen testigantzak, eta sentibilizazio-bideoaren esteka ere bidali beharko zaie.

Nerabeentzako konpromiso-orriaren kopia inprimatuak: ikasle bakoitzarentzat bana eta beste bat irakaslearentzat.

Dokumentu guztiak dituen karpeta sar zaitezke QR hau eskaneatuz



1.c. Aurrekariak: indarkeriaren pertzepzioei buruzko inkesta nerabeen artean

Erreminta-kutxa hau diseinatzeko, gai hauei buruz sarean egindako gure inkestaren emaitzak hartu ziren oinarri: hautemandako estres-mailak (*Perceived Stress Scale 4* edo '*PSS-4*' erabiliz), informazioaren teknologien erabilera, sareko indarkeria-pertzepzioak, sareko indarkeria-gertakariei emandako erantzunak, programe-tako parte-hartzea eta informazio gehigarria jasotzeko asmoa.

14 eta 18 urte bitarteko 300 nerabek osatu zuten inkesta.

Hauek izan ziren emaitza nagusiak:

- ✓ Neska nerabeen estres-maila orokorra nabarmen handiagoa da mutil nerabeena baino: Otik 16ra bitartean neurtzen da (8,04 neskek eta 5,60 mutilek).
- ✓ Nerabeen % 88,2k etengabe edo egunean hainbat aldiz erabiltzen du Internet.
- ✓ Nerabeen % 71,8k ez du etxean Internet erabiltzeko kontrolik edo araurik.
- ✓ Nerabe gehienek uste dute sareko indarkeriak gizoni nahiz emakumeei eragiten diela (bikoteen arteko kontrolaren kasuan izan ezik, batez ere emakumeei eragiten baitie).
- ✓ Gazte batek lagunei bere bikotekide ohia estutasunean jartzeko moduko argazki bat bidaltzen badie, gehienek uste dute lagunak ez dutela ezer egingo edo beste lagun batzuei bidaliko dietela argazkia.
- ✓ Nerabeen % 18k baino gutxiagok uste du lagunak heldu batekin hitz egingo luketela.
- ✓ Emakume gehienek indarkeria mota guztiak arbuiatzen dituzten pentsamenduak eta sinesmenak dituzte, ez dute inola ere justifikatzen, eta horren inguruan zerbait egin behar dutela uste dute.
- ✓ Gizonen artean, sareko indarkeria eta horri buruz ezer ez egitea justifikatzen duten pentsamendu eta sinesmen gehiago hauteman ziren.
- ✓ Parte-hartzaileen erdiek sareko genero-indarkeriari buruzko kanpaina batean parte hartu zuten.
- ✓ Parte-hartzaileen % 56,9k adierazi zuen irakasle batek gaiari buruzko informazioa ematea nahi zuela.
- ✓ Ikasle gehienek (% 59,3) sareko genero-indarkeriako ekintza baten lekuko direnean zer egin behar den jakin nahi dute.

1.d. Indarkeria mota batzuk sarean

BAIMENIK GABEKO SEXTINGA: norbaiten eduki sexualeko argazkiak edo bideoak zabaltzea da, haren baimenik gabe.



SEXTORTSIOA: eduki sexualeko irudiak edo bideoak legez kontra edo eragindako pertsonaren baimenik gabe lortu eta horiek argitaratzeko mehatxua da.

SAREKO INDARKERIA BIKOTEAREN BARNEAN EDO BIKOTEKIDE OHIAREKIN: Internet eta sare sozialak bikotekidea edo bikotekide ohi bat kontrolatzeko, jazartzeko, xantaia egiteko edo umiliatzeko erabiltzea da.



ZIBERJAZARPENA EDO CYBERBULLYINGA: sare sozialen, berehalako mezularitzaren, posta elektronikoaren edo beste bitarteko digital batzuen bidez egiten den jazarpena, zirikatzea edo larderia da.

HAPPY SLAPPINGA: eraso bat grabatuz eta sare sozialetan edo Interneten partekatuz egiten den indarkeria fisiko mota bat da.



**SEXU-IZAERAKO EDO INDARKE-
RIAZKO MATERIALAREKIKO NAHI
GABEKO ESPOSIZIOA:** estres emozio-
nala edo traumak eragin ditzakeen edu-
ki sexual edo bortitzaren nahi gabeko
esposizioa da.

JOKABIDE KALTEGARRIAK BULTZATZEA:
sare sozialak eta bitarteko digitalak norbera-
rentzat edo beste batzuentzat erasokorrek, bor-
titzak edo kaltegarriak diren portaerak sustat-
zeko erabiltzean datza.



1.e. Indarkeria mota guztiak al dira delitu?

Berez delitutzat hartzen ez badira ere, indarkeriazko jokabide gehienak Kode Penalean tipifikatuta daude, eta hainbat modutan zigortu daitezke. **Ibilbide Orrian**, indarkeria mota bakoitzerako garrantzitsuak diren artikulua jaso dira. Garrantzitsuak da argitzea denborak aurrera egin ahala (eta teknologiak aurrera egin ahala) indarkeria mota berriak sor daitezkeela, bai eta zigor eta araudi berriak ere.

1.f. Informazioa eta laguntza-materiala eskaintzen duten estekak

Nerabeek sareko indarkeria-gertakari baten berri emateko jo dezaketen erakunde buri buruzko informazio asko **Ibilbide Orrian** eskura badago ere, behean jaso ditugu gertaera horien berri emateko informazioa jasotzen duten nahiz arazo horri buruzko informazio orokorra ematen duten beste baliabide batzuk.



Ertzaintza

Aholkularitza eta laguntza ematen dizkiete sareko indarkeria jasan duten gazteei, bai eta delitu horiek salatzeko edota halakoei aurrea hartzeko baliabideak ere.



Espainiako Fiskaltza

Paper garrantzitsua du sareko indarkeriaren aurkako borrokan, esparru digitalean egindako delituak ikertu eta epaitzeko ardura baitu. Zehazki, gazteak sareko indarkeriatik babesteko lan egiten du Adingabeen Fiskaltzak, eta jazarpen zibernetikoa, sextinga, groominga eta horiekin lotutako bestelako delituak ikertzen ditu.



Espainiako Guardia Zibila

Sareko indarkeriatik babesteko eta indarkeria horri aurrea hartzeko zerbitzuak eskaintzen ditu, bereziki ziberjazarpenarekin, irudiak edo bideoak baimenik gabe zabaltzearekin, groomingarekin eta antzeko delituekin lotuta. Delitu zibernetikoen salaketak jasotzeaz gain, Guardia Zibilak aholkularitza eta prestakuntza eskaintzen dizkie gazteei, hezitzaileei eta gurasoei, herri-tartasun digital arduratsua eta sareko indarkeriaren prebentzioa sustatzeko. Haurrak eta nerabeak sareko indarkeriatik babesteko beste erakunde eta elkarte batzuekin ere lan egiten du.



Datuak Babesteko Espainiako Agentzia (AEPD)

Espainian datuak babesteko arauak betetzen direla bermatzeaz arduratzen den estatuko agintaritza da. Sareko indarkeriari dagokionez, AEPDk zeregin garrantzitsua du gazteen datu pertsonalak babesteko orduan; izan ere, gazteen datuak arriskuan egon daitezke jazarpen zibernetikoko kasuetan eta sareko beste delitu batzuetan. Gazteak, hezitzaileak eta gurasoak sarean darabilten beren informazio pertsonala babestearen garrantziaz kontzientziazteko lan egiten du AEPDk, eta datu pertsonalak babestearekin lotutako sareko indarkeria-egoerei aurrea hartzeko eta egoera horiek maneiatzeko baliabideak eta gidak eskaintzen ditu.



Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza

Espainiako erakunde publiko bat da, eta genero-indarkeriaren forma guztiak prebenitzea eta desagerraraztea du helburu nagusi. Sareko indarkeriari dagokionez, eremu digitalean genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzeko lan egiten du ordezkaritzak, bai eta ziberjazarpeneko, sextingeko, groomingeko eta sareko beste indarkeria-mota batzuekin lotutako egoerei aurrea hartzeko eta egoera horiei aurre egiteko ere, bereziki gazteei eta emakumeei eragin diezaieketenean.



Espainiako Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala (INCIBE)

Gazteei informazioa, tresnak eta aholkularitza eskaintzen dizkie sareko indarkeriari aurrea hartzeko nahiz aurre egiteko, jazarpena, ziberbullyinga eta groominga barne.



Espainiako Gazteriaren Institutua (INJUVE)

Sareko indarkeriaren biktima izan diren gazteei aholkularitza- eta orientazio-zerbitzuak eskaintzen dizkie, bai eta herritartasun digital arduratsua eta sareko jazarpenaren prebentzioa sustatzeko programak eta hezkuntza-baliabideak ere.



Gazteen Euskal Behatokia (GAZTEAUKERA)

Behatokiaren liburutegian hilabetero ikerketak eta artikulu interesgarriak argitaratzen dituzte. Sareko indarkeriari buruz edo teknologiak modu arduratsuan erabiltzeko aholkuak aurkituko dituzue.

Save the Children Espainia

Gazteei informazioa eta baliabideak eskaintzen dizkie sareko indarkeriari aurrea hartzeko eta aurre egiteko, herritartasun digital arduratsua sustatzea eta sareko diskriminazioaren eta jazarpenaren aurkako borroka barne.

Hezkuntza Teknologien eta Irakasleen Prestakuntzaren Institutu Nazionala (INTEF)

Hezkuntza-baliabideak eta -tresnak eskaintzen ditu, gazteei eta hezitzaileei sareko indarkeriari aurre egiten eta indarkeria hori jorratzen laguntzeko. Sareko hezkuntza-plataformaren bidez, INTEFek baliabideak eta gidak eskaintzen ditu irakasleak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileran prestatzeko, bai eta herritartasun digital arduratsua sustatzeko eta ziberbullyingari eta sareko beste indarkeria-mota batzuei aurrea hartzeko ere. Gainera, INTEFek beste erakunde batzuekin batera lan egiten du, sarean gazteen segurtasuna eta ongizatea sustatzen duten programak eta proiektuak garatzeko.

PantallasAmigas

Erakunde honek informazio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-zerbitzuak eskaintzen dizkie gazteei, hezitzaileei eta gurasoei, sareko indarkeriari aurrea hartzeko eta horren aurrean jarduteko. Halaber, laguntza ematen die ziberbullyinga, groominga eta sareko beste indarkeria mota batzuen biktima izan diren gazteei, aholkularitza eta orientazio pertsonalizatuko zerbitzuen bidez. Gainera, PantallasAmigas erakundeak herritartasun digital arduratsua eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera segurua eta positiboa sustatzeko lan egiten du.

Haurrei laguntzeko Europako telefonoa **116 111**

Doako telefono-zerbitzu konfidentziala da, eta laguntza eta aholkularitza ematen dizkie sareko indarkeriaren biktima izan diren haur eta gazteei, bai eta haien familiei ere. Deiei erantzuten dieten profesionalak biktimen eskubideei eta baliabideei buruzko informazioa ematen dute, sareko indarkeria salatzeko eta indarkeria horri aurrea hartzeko moduari buruzko orientazioa eskaintzen dute, eta laguntza emozionala eta psikologikoa ere ematen diete kaltetuei.




2. Nerabeen babesarentzako dokumentua

Dokumentu honek informazio garrantzitsua ematen dio irakasleari, lantegian parte hartzen duten nerabeei beharrezko babesa bermatzeko, jarduerak izan ditzaketen arriskuak aztertzen baitira eta arrisku horiek arintzeko babes-jarraitibide batzuk ezartzen baitira (adibidez, nola jokatu biktima batek gertaera baten berri ematean).



3. Baimen informatua

Dokumentu labur honen bidez, lantegian parte hartzera gonbidatutako nerabeek lantegiaren helburu, onura eta inplikazioei buruzko informazioa jasotzen dutela bermatzen dugu, parte hartzeko asmoa beren borondatez adierazi ahal izan dezaten.



4. Rol Jokoa-ren jarraibideak eta materiala

<p>Helburuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> » Ikasleei laguntzea ingurune birtualetan gertatzen diren indarke-ria-egoerak hobeto ulertzen. » Enpatia areagotzea eta esku hartzen duten pertsonen ikuspegitik ikustea egoera, pertsona horiek ezagutu ez arren edo zuzenean ikusi ez arren. » Gogoetarako gune bat eskaintzea, gertakari horien konponbideetan eta erantzunetan pentsatzeko eta, halaber, ikasleek identifikatutako berariazko teknikak ikasteko.
<p>Iraupena (guztira: 60 minutu)</p>	<ul style="list-style-type: none"> » Jarduera aurkeztea eta prestatzea: 15 minutu. » Rol Jokoa: 25 minutu. » Estrategiak eztabaidatzea eta identifikatzea taldean: 20 minutu.
<p>Materialak</p>	<ul style="list-style-type: none"> » Pertsonaien deskribapena: dokumentu honek antzezpenean parte hartuko duen pertsonaia bakoitzaren deskribapen laburra eskaintzen du lehen pertsonan. » Kartelak pertsonaien izenekin (aukerakoa): beharrezkoa ikusten baduzu, antzeztea egokitzen zaion pertsonaiaren izena duen kartel bat eman diezaiokezu ikasle bakoitzari, gainerako ikasleek errazago identifikatzeko. » Istorioaren gidioa: dokumentu honek hainbat ohar ditu, honako hauek azaltzeko: (i) irakasleari, zer unetan esku hartu behar duen eta nola; (ii) Rol Jokoa egiten duten 7 nerabeei, haien elkarriketa-ildoak zein diren; eta (iii) gainerako ikasleei (ikusleak), zer galderari erantzun behar dieten. » Instagrameko txartelak: 7 diapositiba horiek modu grafikoan erakusten dute istorioa garatzen den ingurune digitalean zer gertatzen den. » Irakasleentzako eztabaida-orria: dokumentu honek taldean estrategiak identifikatzeko eztabaida abiarazten lagunduko dizu. » Arbela eta klariona edo errotuladoreak (aukerakoa): egokia iruditzen bazaizu, baliabide hauek erabil ditzakezu taldean estrategiak errazago eztabaidatzeko eta identifikatzeko.

Jardueren deskribapena urratsez urrats

Jarduera aurkeztea

- » Esan iezaiezu Save the Children erakundea ari dela Erreminta Kutxa diseinatzen, gazteen laguntzarekin, hala, gazteek tresna egokiagoak izan ditzaten sareko indarkeria-egoeren aurrean.
- » 7 ikasle boluntario behar dituzu Jon, Sara, Paulo, Alaia, Gaizka, Daniel eta Martaren pertsonaiak antzezteko. Galdetu ikasleei ea nork egin nahi dituen pertsonaia horiek, eta esleitu rolak ausaz. Bakoitzari dagokion pertsonaiaren izena duten kartelak jartzea gomendatzen da, gainerako ikasleek errazago identifikatu ditzaten.
- » Eskatu Rol Jokoa parte hartu behar duten ikasleei istorioaren gidoia irakurtzeko 5 minututan, eta hasi aurretik edozein galdera edo iruzkin egiteko. Eta esan lasai egoteko, zuk egingo baituzu Rol Jokoa moderatzaile-lana.
- » Eskatu Rol Jokoa ikusten ariko diren ikasleei istorioaren gidoian jasotako jarraibideen arabera erregistratzeko beren ideiak.

Rol Jokoa

- » Pertsonaia guztiak jendaurrean aurkeztuko dira lehenik, pertsonaiaren deskribapen laburra ozenki irakurriz.
- » Jardueraren moderatzaile aktiboa izango zara. Une batzuetan, istorioa “kontatu” egin beharko duzu (ikasleari pertsonaia antzeztu aurretik bide emateko), eta, beste batzuetan, “txartel bat erakutsi beharko duzu” (planteatutako Instagrameko egoeran gertatzen dena irudikatuko duena). Instagrameko txartelen kasuan, proiektatzea gomendatzen dugu, ikasleek argi ikus ditzaten. Proiektagailurik ez baduzu, Instagrameko txartel bakoitza A4 neurrian inprimatu dezakezu, eta istorioaren gidoiak adierazten duen ordenan erakutsi.
- » Rol Jokoa Jonen esku-hartzearekin hasten da, eta Martarenarekin amaitzen da.

Jardueren deskribapena urratsez urrats

Estrategiak eztabaidatzea eta identifikatzea taldean

- » Oraindik amaitu ez dutela ikusten baduzu, eman ikasleei 5 minutu gehiago, jarduerari buruzko iruzkinak eta pertzepzioak idatz ditzaten istorioaren gidoian.
- » Eskatu ikasleei istorioko beren gidoietan zer erantzun zuten azaltzeko, hala, beren ustez egin zezaketenaren edo esan behar zutenaren gaineko taldeko eztabaida abiaraz dezaten. Laguntza gisa, zuk bakarrik duzu irakasleentzako eztabaida-orria, eztabaida sustatu ahal izateko.
- » Ikasleen erantzunak arbelean idaztea komeni da, ikasle guztiek ikus dezaten.



5. Ibilbide Orriaren jarraibideak eta materiala

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> » Ikasleei laguntzea, sareko indarkeria-ekintza baten biktima edo lekuko izatean eman behar dituzten pausoak argiagoa izan ditzaten. » Horrelako kasuak salatzeo laguntza eskaintzen duten erakundee-kin harremanetan jartzeko informazioa ematea. » Ikusleak eta biktimak ahalduntzea, egoeraren gaineko kontrol handiagoa izan dezaten eta horren aurrean egin beharrekoak egin ditzaten.
Iraupena (guztira: 60 minutu)	<ul style="list-style-type: none"> » Jarduera aurkeztea eta prestatzea: 10 minutu. » Ibilbide Orria berrikustea: 40 minutu. » Banakako konpromisoak: 10 minutu.
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> » <u>Ibilbide-orria PowerPointen aurkeztea:</u> dokumentu honek nerabeek sareko indarkeria-ekintzak ikustean erabil ditzaketen estrategiak iradokitzen ditu. Horretarako, sareko indarkeria motei buruzko esparru teoriko eta legal labur bat, informazioa emateko edo jasotzeko erakundeei buruzko informazioa, entzunezko testigantzak eta sentsibilizazio-bideo labur bat eskaintzen ditu. » <u>Nerabeentzako konpromiso-orria:</u> dokumentu honen bidez, nerabeak bultzatzen ditugu sareko indarkeriaren aurrean konpromiso- ren bat har dezaten; ematen dizkiegun adibideetako bat aukeratu dezakete edo beste bat proposatu dezakete.

Jardueren deskribapena urratsez urrats

Jarduera aurkeztea

- » Azaldu ikasleei “GERTATU BADA, EGON GERTU” Sareko Indarkeriaren Aurkako Erreminta Kutxa lantzen jarraituko dutela gaur.

Jarduera prestatzea

- » Jarduerarekin hasi aurretik, gida honen sarrerako atalak irakurtzea gomendatzen dizugu: “Sareko zenbait indarkeria mota”, “Indarkeria mota guztiak al dira delitu?” eta “Informazioa eta laguntza-materiala eskaintzen duten estekak”; izan ere, Ibilbide Orria segurtasunez aurkezten laguntzeko funtsezko edukiak jasotzen dituzte.
- » Prest izan proiektagailua eta audioa Ibilbide Orriaren PowerPointa aurkezteko. Proiektagailurik edo audiorik ez baduzu, eman iezaiozu ikasle bakoitzari PowerPointeko diapositiben kopia inprimatu bat, eta eska iezaiezu ozen irakur ditzatela sareko indarkeriaren biktimen testigantzak; horrez gain, sentsibilizatzeko bideoaren esteka ere eman ikasleei, gero ikus dezaten.
- » Nolanahi ere, proiektagailua izan edo ez, nerabeentzako konpromiso-orriaren kopia inprimatu bat eman beharko diozu ikasle bakoitzari, Ibilbide Orria ikusi ondoren osa dezaten.

Ibilbide Orria

- » Irakurri Ibilbide Orria ikasleekin batera. Galdetu ea iradokizunik, iruzkinik edo zalantzarik duten, eta bultzatu ikasleak parte hartzera.
- » Dinamikoagoa eta parte-hartzaileagoa izan dadin, eskatu ikasleei ozen irakur dezatela diapositibaren bat, elkarrekin hausnartzeko gonbita eginez.
- » Ikusi sentsibilizatzeko bideoa. Nahikoa denborarik ez baduzu, esteka bidal diezaiekezu ikasleei, eta hurrengo saioan berriro heldu gai horri.
- » Eskatu ikasleei, Ibilbide Orrian aurkeztutako informazio guztia oinarri hartuta, konpromiso bat aukeratu dezatela eta eman zitzaien orrian bete dezatela, edo, bestela, konpromiso berri bat proposa dezatela.
- » Gonbidatu ikasleak beren ideiak gainerako ikasleekin partekatzea.

6. Jarduerak egin ondorengo gomendioak

Ikasleek indarkeria-motaren bat jasan izanaren berri ematen badute, galdetu ikastetxeari ea baduen egoera horri aurre egiten laguntzeko pertsonarik (psikologo, ongizateko koordinatzailea edo beste bat).

Horretarako, haurrak babesteko gure dokumentua eta laguntzeko informazio-baliabideak, gida honetan aipatzen direnak, kontsultatu ditzakezu.

Gainera, zure eremuan erabilgarri dauden autonomia edo udal mailako baliabideak bilatu ditzakezu. Ziurtatu eskuragarriak eta doakoak direla.



